

oro korra



S i n d i k a l H e z i k e t a



Euskal Herriko historia.

LAB Hezkuntza



Zbkia

Slk00002

DOKUMENTAZIO ZENTROA



**3.**

**Euskal Herriko  
historia.**

### 3. Euskal Herriko historia.

Idazlea: **Joselu Cereceda.**

Argitarazlea: **Ipar Hegoa Fundazioa.**



**EUSKO JAURLARITZA**

JUSTIZIA, EKONOMIA, LAN  
ETA GIZARTETIKO SEGURANTZA SAHIA



**GOBIERNO VASCO**

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,  
ECONOMIA, TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL

1998. URTEA

3.

oroakorra

SINDIHAL HEZIKETA

## Euskal Herriko historia.

FEUDALISMOA ETA KRISTAUTZEA.

NAFARROA, ARRAGOA.

ARABA, BIZKAIA, GIPUZKOA. NOLA AGERTU ZIREN HISTORIAN.

INGELES AGINTEA EUSKAL HERRIAN.

HIRIETAKO SORKETA ETA BILAKAERA.

GATAZKA BANDERIZAK.

EUSKAL BURDINGINTZA.

MERKATARITZA, KONTRABANDO, BALENARRANTZALEAK.

BETIKO EZTABAIDA.

ERREBOLTA SOZIALAK.

FRANTSES IRAULTZAREN ERAGINA.

KARLISTADAK.

HEGOALDEKO BANAKETA INSTITUZIONALA.

INDUSTRIALIZAZIOA.

INDUSTRIALIZAZIOA, GIZARTE ETA POLITIKA.

### 3. Euskal Herriko historia.


Liburuxka honen bidez, Euskal Herriaren Historiaren alderik interesgarrien laburpen bat eskaintzen saiatu gara, ahal den modurik objektiboena.

Karlistadak, Bandoen gatazkak, euskaldunen kaperatasun unibertsala, euskal nazionalismoaren jaiotza eta antzeko gertaerak, sarri askotan gaizki aztertuak izan dira, unean uneko baldintza sozialak, ekonomikoak eta politikoak kontutan hartu gabe. Guzti honi gehi diezaizkiokegu, gure sorrera eta Historia aztertzeko orduan, hain sarritan agertzen diren subjektibismoa eta politika-asmoa.

Lan honetan, gure Herriaren Historiaren gezurrezko ikuspegietara daramaten tipikoetatik urrun dauden bide berriak, beste irakurketa batzuk, ireki nahi dira.

Gertaeren azalpen exhaustiboari ihes egin diogu. Beste ikuspegi bat interesgarriagoa iruditu zaigu: nola eta zergatik gure Herriak molde propioak garatu zituen, nahiz eta indar handiko eta sarritan bere izaeratik urrun zegoen mundu baten barruan murgildurik egon, nola, denboraren zehar, bere burujabetasuna errekuiperatzeko beharrezkoak diren bide berriak berrasmatzen dituen. Eta argi eta garbi uztea baita ere, klase interesak eta herri baten izateari dagozkionak ezin dira bereiztuta aztertu, historikoki batzen diren indarrak baitira.

Azkenik, azalpen bat egitera behartuta gaude: lan hau egiteko, oinarri bezala, 1.988.ko Abuztuan argitaratu zen "Punto y Hora" aldizkariaren monografikoaren edukia erabili dugu. Agertarazi nahi dugu, baita ere, gure ezagutza, eskerrona, hala jabegoa duen enpresari nola monografikoaren egileei.



# Feudalismoa eta Kristautzea.

Gizarte feudalak hiru oinarri zituen: Erromatar garaian indarrean zegoen gainegituraren arrastoak, germaniar eta arabiarren ohiturak, eta ezaugarri tribalak zituzten egitura propioak.

Mendietan ("saltus vasconum"), non ia ia erromatar, germaniar eta arabiarren eragina ez zen nabaritu, Feudalismoa berandu agertu zen. Lautadan ("ager"), aldiz, erromakuntza intensiboagoa izan zen. Horregatik, Feudalismoa lehenago agertu zen.

Erregen politikak, hiri-gintza mailak, zonalde bakoitzeko izaeran bere eragina izango zuten.




### 3. Euskal Herriko historia.

Bestaldetik, euskaldunen ebanjelizazioa, berantiarra eta erresistentzia gogorreak izan zen. Kristianismoak, zentzu batean, deuseuskalduntze prozesu bat eragin zuen. Erromatar Inperioaren erorketak, bertako kulturaren zuzperketa bultzatu zuen. Baskoiek, kristianismoaren aurka jardun zuten, menperatzaileen erlijioa, kolonizazioa egiteko baliabide bat izateagatik. Logikaz, "saltus"-a, "ager"-a baino gogorragoa izan zen kultur arrotza onartzeko orduan. 1.452.ean, Bizkaiko Foruak "la entrada del obispo, ni sus vicarios, ni otros" errefusatu zuen, Nafar Foru Orokorrak, poligamia, ohaideak eta ezkon-apurketa instituzionalitatu zituen...

Elizbarrutiaren sorruntzak eta erregetzaren zabalkuntzak, kristianismoaren hedadura indartsu bat ahalbideratu zuten. Erdi Aroko Eliza, Nafar Erresuman sendago garatu zen, Bizkaian, Gipuzkoan eta mendiko bailaratan baino. Hemen, parrokiek norabidea xedatuko zutenak izan ziren, elizaldea, harreman sozialen inguru bezala sortuz.

# Nafarroa, Arragoa.



Nafarroa erresuma independente bat izan zen, hots, Euskal Lurraldeek gure Historian zehar lortu zuten maila gorena. Nafarroak, Erdi Aroan, euskaldun guztiak batu zituen. Erresuma batek duen estratifikazioa ez zegoen antzinako euskal gizartean, baina, arabiar, bisigodo eta frankoen aurka independentzia zaintzeko, apurka apurka, aipaturiko estratifikazioa sendotzen joan zen.

Elkarren segidako izandako saiakera menperatzaileek, alde batetik, menditarren altxamenduak eragin zituzten, eta bestetik, buruzagitza militar bat sendotu, lehendabiziko erakunde politikoak agerperenarekin batera: Baskoniako Dukerria eta Iruneako Erresuma (zeinetik Nafarroako Erresuma sortuko zen).

Nafar Erresuma, bere antzinako eran, erresuma piri-

niar bat zen, Bearn, Jaka, Ribagorza eta Kataluniarekin harremanetan zegoela, hala menpekotza nola menderaketatik. Pirinio mendietako izaera geostrategikoa izugarria zen. Honek, aliantza politikak zuen paper garrantzitsua azaltzen du. Hori dela eta, Antso Nagusiaren garaietan, Nafarroak, menpekotza harremanak direla medio, Aragoa, Gaztela, Sobrarbe, Ribagorza, Lapurdi, Zuberoa, Gaskonia, bere kontrolpean zituen...

### 3. Euskal Herriko historia.

905.ean, Aristen leinua Jimenoenaz ordezkatu zenean, Nafarroako Erresuman erregetza sendotu zen, leinuko erregimena ahultzen zen bitartean. Jimenoen Dinastia hiru mendeetan zehar erregetzaren jabe izan zen, 1.234.ean Frantziar Dinastia ailegatu arte. Behenafarroa kontutan hartzen ez bada, Nafarroak, gaur egun dituen mugak jadanik bazituela esan daiteke. Jimenoen Dinastiaz, hedapen territorial politika bat sendotu zen. Antso Nagusia, Mendebaldeko erregerik boteretsuena izatera ailegatu zen.

Antso Nagusia hil zenean, semeek, beren aitak zituen estatuak, elkarren artean banatu zituzten (Nafarroa, Aragoa, Sobrarbe-Ribagorza eta Gaztela), zegoen batasun politika desagertuz eta Nafarroa hedapen ahalbiderik gabe geratuz, hau, Gaztelak eta Aragoak orobiltzen baitituzten.

1.234.ean, Antso Azkarra oinordekorik gabe hil zen. Hori dela eta, boterea, Frantziar Dinastietara igaro zen, kapareek erregearen botereari aurre egiten zioten garai baten hasiera sortuz. 1.328.ean, Evreux Dinastiak boterea lortzen du

1.425.era arte. Hala eta guztiz, erresumak frantziar eskueran jarraitu zuen eta aldez edo moldez, Ehun Urteko Gerran partehartzera behartuta. Nafarroak ez du lortzen bere burua zentratu.

Karlos II.ak, ingelesekin kide zuen, Erresuma kanpoko gatazka batetan sartu zuen. Gaztelako erregetza eskuratzeko guerran, Trastamara etxekoen garaipean, Nafarroako Erregeei, Gaztelarekin mota askotako aliantzak -ezkontzak barne- garatzera behartu zien. Karlos III.ak erregetza lortu zuenean, berreraikuntza politika eraginkor bat -batez ere ekonomikoa- hasi zuen.

Karlos III.a hil ondoren, 1.450.ean, bere semea, Karlos, Bianako Printzearen eta bere suhia, Aragoako Juan II.aren arteko guda zibil hasi zen. Karlos-ak, beamondarren laguntza jaso zuen eta Juan II.ak, agramondarrena. 1.479.ean, Nafarroako Gorteek, Foix Dinastiakoak, Nafarroako Erregeak bezala onartu zituzten. Foixtarrak, Bearnoko jaunak, Frantziako Erregearen menpekoak ziren. Nafarroako Erregeak izateak, Foixtarrak, penintsulan, frantziar sarrerako garrantzitsuak izan ziren egoera estrategiko bate-

tan kokatu zituen, Errege Katolikoek, Nafarroa bereganatu nahi zuten bitartean. Isabel hil ondoren, Fernando, Nafarroako erregetzaren erregina-nahi zen Foix-ko Germanarekin ezkondu zen, eta Gaztelako erregeordea lortu zuen. 1.512.ean, Frantziarekin gudan sartzen da, eta Frantziaren eta Nafarroaren arteko balizko aliantza bat aitzakitzat hartuz, Nafarroa indarrez hartu zuen. Konkista, ia aurkakotasunik gabe egin zen. 1.513.ean, Nafarroako Gorteek, Fernando, errege bezala zin egin zuten, eta 1.515.ean, Burgos-ko Gorteek Nafarroaren Erresumaren eransketa erabaki zuten, bere instituzioak -Gorteak, Erret Kontseilua, Konptu Ganbara- mantenduz, erregeorde figura indarrean jartzen den bitartean. Nafarroak, "según sus fueros, leyes, reglamentos, usos y costumbres, franquezas y libertades" funtzionatzen jarraitu zuen, 1.839.ean, lehenengo Karlistada bukatu ondoren, bere "espainoltze" prozesua hasi arte. Nafarroak, Gaztelan eransketa itun baten bidez izan zela, biziki defendatuko zuen. Nafarroak, bere prozesua ez zuen gelditu, eta eransketa gertatu ondoren, ez zen "espainol" bilakatu

# Nafarroa, Bizkaia, Gipuzkoa.

## Nola agertu ziren Historian.

Erromatar Aroan, Euskal Lurraldeek ez zuten izen propioirik. Tribuek eta okupatzen zituzten eremuek, aldiz, bai. Bazeuden, esate baterako, karistiar, barduliar, baskoitar, autrigoitar eremuak, baina "Autrigoia" ez zegoen. VII. mendean, Baskonia izango da, Bizkaia-tik Akitania-ra Euskal Komunitate baten errealitatea adieraziko duen terminoa. Urteak itxaron behar izan zen, Hegoaldeko Lurralde Historikoen izenak dokumentutan aurkitzeko. Eta mendeak, gaur ezagunak diren perfilak bereganatu arte (XV. mendearen amaieran, gutxi gora behera).

Bizkaia ("Biscay") eta Araba ("Alabanque") izeneta-ko lehendabiziko aipamena, IX. mendearen amaieran, Alfontso III.aren kronikan aurkitzen da. X. mendean, Araba, dukerri edo jaurerri izaera politikaz agertzen da. XI. mendean, Don Garcia Armendariz, Gipuzkoako Jaunaren doku-



### 3. Euskal Herriko historia.

mentu batetan, "Ipuzkoa" izenaren lehendabiziko aipamena aurkitzen dugu. Garai honetan, Gipuzkoa, Nafarroako Erregearen menpe dago.

Bizkaiko Jaurerriak, maila juridiko handiagoa zuen, Gipuzkoak eta Arabak baino, zeren Bizkaiko Jauna, ugazaba aberats bat izateaz gain, Nafarroako edo Gazteluko Erregeen mandatarri baitzen. XI. mendean, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaia, Nafar Erresumaren menpe daude. XI. ean, egoera honek, aldaera gutxiez, jarraitu zuen.

XII. mendearen amaieran, Gaztelako Alfontso VII.-ak bere eremuei Gipuzkoa eta Araba gehitu zizkien, Bizkaia, bere Jauna zen Diego Lopez de Haro-ren bidez sartu zen

bitartean. Honek, Gaztelako Erregegandik Durangaldea jaso zuen "erregalia" bezala. Gebaratarrek, Arabako eta Gipuzkoako dukeek, Gaztelako Erregea aukeratu zuten.

Gaztelak egindako Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako eransketaren gaia oso eztabaidatua izan da Historian zehar. Eransketa itun ala konkista baten bidez egin zenentz zen gakoa. Itun baten bidez egin bazen, euskaldunek munduko eskubide guztia zeukaten, agindutakoa betetzen ez zuen erregetza batekin bere harremanak apurtzeko. Konkistaren bidez izan bazen, aldiz, Foruak, Erregeek mantendu edo kendu zezaketen pribilegio bat ziren. Gaur, noski, eztabaida beste hildo batetik doa.

# Ingeles agintea Euskal Herrian.

Antso Nagusiak, XI. mendearren lehenengo erdialdian, Lapurdi, Nafarroa eta Zuberoako eremuari bere lehendabiziko itxuraketa politika eman zion. Eremu honek, Gaskuñako Dukerria zuen izenez. Garai honetan, Lapurdi eta Zuberoako bizkonderriak eta Amikuzeko jaurerria sortu ziren.

Antso Nagusia hil zenean, Lapurdiko bizkonderria (Behenafarroako zati handi bat barnean zuela), Akitaniako eremuan sartu zen. 1.152.ean, Leonor, Akitaniako oinordekoa, Plantagenet-eko Enriquerekin ezkondu zenean, "lurralde-dote" guztia ingeles agintera igaro zen, zeren Enrique, 1.153.ean, Inglaterrako Errege bihurtu zen. Hau, Frantziako Erregearen menpeko zen, baina boteretsuago, bere jabetzak direla eta. Ingeles Erregetzak, Lapurdiri, bere usadioak eta libertateak ezagutu zizkion. Baiona, bere kokapen estrategikogatik, eremu dinamikoagoa izan zen.

XII. mendean, Nafar eta ingeles botereen arteko aurkaketak gertatu ziren, sarri askotan mugarrizko zailak ziren lurraldeengatik. Lapurdi ingeles agintearen menpe geratu zen, Behenafarroan nafarroaren menpe, Zuberoa, txandaka ibili zen, luzez, mendekotzaren harreman politikokak direla eta.

XIV. eta XV. mendeetan, egoera aldatu zen. Inglaterrak eta Frantziak

hexagonoaren hegemoniaz gatazkatu zuten. Bearneko Bizkonderria Frantziarekin aliatu zen eta Lapurdi eta Zuberoa bereganatu zituen. Hori dela eta, hauek, Frantziar erregetzara igaro ziren. Dakigunez, handik urte gutxira, Fernando Katolikoak Nafarroa bereganatu zuen. Horrela bukatu zen hiru mende baino gehiago iraun zuen ingeles agintea.



# Hirietako sorketa

eta

bilakaera.

Euskal Herrian, hirien sorketak, XI. mendearen amaieran hasi eta XIV.era arte jarraitu zuela esan daiteke. Garai honen amaieran, ezagutzen ditugun ia hirigune guztiak sortuak zeuden. Hiriko hazkuntza hau, hazkuntza ekonomikoak eta demografikoak bultzatuta izan zen. Hiria, baserriaren aurka zegoen errealitate sozial eta ekonomiko desberdin bat zen. Hau azpimarratzea, beharrezkoa da.

Euskal Ekonomiaren ahuleziak, XI. mendean Nafarroan, XII.ean, Araban, eta XIII.ean Gipuzkoan eta Bizkaian hasi zen hirigintza atzeratu zuen -Donostia, Balmaseda, Otxandio eta Bermeo izan ezik-. Iparraldean, Baiona salbu, erdiguneek ez zuten lortuko hiri-titulua XIV. eta XV. mende-  
etara arte.

Jakobear bidetik erromesaldiak, artisauza eta merkataritzaren iharduerak indartsu geratzen ziren tokietan,

hirien hedapena bultzatu zuen. Horrela, Lizarra, Zangotza, Iruñea, Gares, Agurain, sortu ziren. XIV. mendean, kostako bidearen erabilpenaz ditugu berriak (Donostia-Zumaia-Itziar-Markina-Gernika-Bilbo). Santiagoko bideari esker, Euskal Herria, XI. mendetik Europan hedatzen ari zen moneta eta merkataritzako trafikoa sartu zen.

Baina hirigintza bultzatu zuten beste arrazoi batzuetan izan ziren. Adibidez, Nafarroak, Aragoako eta Gaztelako expantsionismoari aurre egin behar zion. Antso Jakitunaren erregealdian, Biasteri, Gasteiz, Bernedo eta Donostia sortu ziren, azken hau itsasora irteera bat edukitzeko, eta besteak, Errioxan nafar jarrerak laguntzeko. Gaztelako muga zaintzeko sortu ziren Kanpezu, Agurain, Bastida, Hondarribia, Getaria...

Argi dago militar izae-  
rak nagusi izan behar zuela, eta euskal hiri gehienetan, Aro Berria oso garatuta egon arte iraun zuela. Honek, harresi eta hirigune irekien existentzia egiaztatzen du.

Militarra baino garrantzitsuagoa, ekonomi faktorea izan zen. Hirietan, azokak, feriak, sortzen dira. Santiagokoari, merkataritzaren bultzatzailea, XII. mendetik, Gaztelako artileak Europarantz egiten zuen bidea gehitu behar zaio. Bizkaia, Gipuzkoa, Araba eta Lapurdiko bortuak, trafiko honen geldiuenerik garrantzitsuenak izan ziren. Eta beste arrazoi batzuetan ere bai, herri bati hiri izaera emateko: Azkoitiak, Elorriok, Zestoak, Markinak, erregeari babesa eskatu zioten, bandoez beren burua zaintzeko.

Hau, aitzakitzat erabili zen, bere eremuan sartzen zituen lurraldeak, Koroak jaurreriaren jabetzatik ken zitzan.


# Gatazka

## banderizak.

Oinaztarrak ganboarren aurka, agramondarrak beaumondarren aurka, harripaketak, lapurretak, mende-koak, batailak, sarri askotan huskeria batek eraginda...gatazka banderizen emaitza izan ziren. Ez da erraza gertaera hauei koherente eta zientifikoa den azalpen bat aurkitzea.

Gatazka banderizak, geroago ikusiko dugunez, leinuen arteko norgehiagokoen zerrenda bat baino zer edo zer gehiago izan ziren. Egia esan, gatazka hauek, mundu feudalaren deskonposiziotik merkatu ekonomia sendotu arte doan egoeran garatu ziren.

Erdi Aroko euskal gizarteari buruzko datu askorik ez dugula aitortu behar da. Baina badakigu jakin, aldame-neko lurraldeekin parekatuz, bere atzerapena, batez ere arlo ekonomikoan, nabari zela.



### 3. Euskal Herriko historia.

Itsasoko eremuko nekazaritzaren garapena oso ahula zen, hori dela eta, erromatarrentzat, eremua ez zen erakargarria. Horregatik, hain zuzen, erromakuntza erabat azalekoa izan zen. Ez zen existitzen "fundis" edo/ta "villa" izeneko nekazaritzako unitatea, ia ez zen esklabotzarik...hots, erromatar agintealdiak ez zuen suposatu gure Herriaren antolakuntza sozio-



politiko propioaren desegite traumatikorik. Hau, geroago Euskal Herriak izan zuen kristautze berantiarrean isladatu zen.

XV. mendean, oraindik, harreman sozialak, familia handienetan egiten ziren, baina ez antzinako artzainketa eran (karistiarrak, barduliarak...).

Bandoak eta leinuak zer ziren argitzea, ezinbestekoa da. Caro Barojaren usteetan, "leinua, gizabanakoen zerrenda batez osatuta dago, zeinean lerro bat baino ez da kontutan hartzen: aita, aitaren aldeko aita, honen aita...". Bandoa, "enbor bereko leinuek" osatuta zegoen.

Garai hartan, Euskal Herrian ez ezik, baizik eta Europako zati handi batetan, aginte publikoaren porrotak, indarkeriaren ugalketak, eta garapen ekonomikoaren etekinak lortzeko borrokak, benetako leinu-kontzietzia baten agerpena bultzatu zuten. Leinuaren buruan Handikiak, Ahaide Nagusiak zeudeten. Hauek, jatorrizko sortetxeko izena zeramaten eta beren antzinako betebeharrei -militarburu bezala-, garrantzi handiko ekonomi prebendak gehitu zitzaizkien.

Leinu baten kide izate-ra nahita igaro zitekeen, zerbitzuak eskainiz ("tregoa-tuak") edo Ahaide Nagusiekin zorrak izateagatik ("gomen-datuak"). Ahaide Nagusiek, elitea osatzen zuten eta jarraian, aitonen semeak, nekazariak, koilazoak, peoiak...Nafarroan, egitura garatuagoa zegoen.

Oinaztarrek eta ganbo-  
arrek, nahiz eta beren jatorri Araba izan, beren aurkaketa-rik gogorrenak Gipuzkoan eta Bizkaian garatu zituzten. Agramondarrak eta beaumontarrak, Nafarroako Bortuoste Merinaldean sortuak ziren. Erresumantzako funtzeskoa zen auzi dinastiko batetan bando hauen partehartzeak, beren gatazkak beste zentzu batetan kokatu zituen.

Bapatean sortzen den galdera hau da: Zein da garai honetan garatu zen indarkeria izugarriaren funt-  
sa?. Historialarientzat, bando-  
en gatazkek hiru motatako aurkaketak biltzen zituzten: Nekazaritzako aitonen seme-  
ak laborariekin (XV. mendean Sistema krisian zegoen eta honen ordainetan, aitonen semeek laborarien aurkako presioa areagotu zuten), aitonen semeak, hirietako biztan-  
leen pentsamoldearekin.

### 3. Euskal Herriko historia.

Azkenik, aitonen semeek elkarren artean zeukatena.

Bandoen indarkeria jasatzen zuten komunitatetan, mota desberdineko erantzunak sortu ziren. Batzutan, hiriko edo nekazaritzako komunitateek, bando baten presioa ekiditzeko, besteari eskaintzen zizkioten beren zerbitzuak. Hirien sorketa, XIV.mendean zehar, aitonen semeek sorturiko itobeharraren aurkako bilaturiko erregearen babesaren ondorioa da. Altxamenduak, ere, gertatu ziren. Nahiz eta basatiki erreprimituak izan (esate baterako, 1.448.ean ganboarrek sorturiko Arrasateko sutea), Ahaide Nagusien boterea ahuldu zuten.

Lapurkeriaren aurka borrokatzeko -bandoak, aldez edo moldez, bultzatzaileak edo/ta babesleak ziren, Anaiarteak sortu ziren, laborarien, hiri batzuetako eta kapare batzuen aliantzak.

Baina leinuen boterearentzat heriotz kolpe bat suposatu zuena, Gaztelako Erregeek Euskal Lurraldea "baketzeko" harturiko erabakia izan zen. XV. mendean, Enrike IV.ak, Gipuzkoako gotorlekuak lurreratzea agindu eta "tregoatu" figura desgertarazi zuen. Bizkaian, leinuen boterea ahultzen zuen bitartean, Euskal Lurraldean erregetzaren papera indartzen zuen ordenantza-zerrenda bat onartu zen. Euskal Herrian, aitonen lemen aurkako mugimendu indartsu bat sortzen hasi zen. Erkidego askotan, hartzen ziren kapare kartak, prozesu honen ondorioak dira.

Bitartean, Moneta Ekonomia sortu eta zabaldu zen. Klase gidari berri batek, lokal boterearen zuzendaritza bere gain hartzen du: hiriko oligarkia. Ahaide Nagusiak, birmoldaketa prozesu bat hasi ziren eratzen, hirietako burgesiekin aliantzak bilatzen eta haiekin batera, Estatuko bote-

# Euskal

# burdingintza.



Tradiziozko Euskal Industria hizegiteak, burdiolaz hitzegitea eskatzen du. Erromatarrek bazekiten Euskal Herrian zegoela -batez ere, Bizkaian- kantitate eta kalitate handiko burdingaia, baita kobre ere -Baigorri-. Lehendabiziko dokumentazioak, IX.mendekoak dira eta Araba bakarrik aipatzen dute. XII. mendean, burdinolak kostaldera hedatu ziren. Kantauriko itsasbazterren garrantziak -nazioarteko harremani zegokienez- eragin handia izan zuen euskal burdingintzan, zeinak Gaztelako Koroarekin eta Europako lurralde batzuekin merkataritza harremanak baitzituen. XV. eta XVI. medeetan gaude.

Euskal Herriko kostaldeko isurialdeak, baldintza ezin hobeak zituen burdinole-tako kokapen eta hedapenerako: mea ugari, basoak, ur-energia lortzeko eta material garraiatzeko ahalbide oneko

### 3. Euskal Herriko historia.

ibaiak, nazioarteko merkataritzari lotuta zegoen kai-sare bat...eta Burdinolen Foruek sorturiko babespen-legea.

Orokorrean, burdinolak, Azarotik Maiatzera arte jarduten zuen eta laborarei, beren errenta txikiak osatzea errazten zien.

Burdinolak, untzigintzaren hedapena bultzatu zuen. Bestaldetik, exportaziek emaniko diru-sarrerek, kostaldeko eremuak zuen oinarritzko produktuen defizita leuntzea erraztu zuten.

Uler daitekeenez, olagintzaren krisiak, populazioaren sektore askotan, erosteko ahalmena gutzitzen zuen. Datu aipagarri bat: Antzinako Erregimenean, euskal herri-altxamenduei, "matxinadak"

deitzen zitzaien. Ez da kasualitatea, hitz hau, Matxin(Martin)-etik dator, olagizonen patro santuaren izena. Olagizonak, beren desadostasunak adierazten lehendabizikoak ziren normalki.


Europar burdinaren lehiaketak, batez ere ingeles ekoizpenarenak -muga guttien gainetik igarotzeko gai baitzen- sarritan krisiak sortzen zituen. Euskal burdingintza, XIX.mendean desagertu zela esan daiteke.

Lehiaketak bakarrik ez. Barruko arrazoiek ere, sektorearen desagerpenari lagundu zioten: finantzaketa-gaitasun eskasak, lukurreriak, etorkizuna aurrizusteko eta berrikuntza teknologikoa egiteko zailtasunak...

# Merkataritza, kontrabando, balenarrantzaleak.

Burdingintza bezain garrantzitsua, euskal kaltetako trafikoa izan zen, batez ere XVI., XVII. eta XVIII. mendeetan. Ekonomi eremu bakoitzak, nazioarteko merkataritzara heltzera errazten zioten produktuak ekoizten zituen. Arabak eta Nafarroak, mahatsondoa ekoizten zuten. Nafarroak, gainera, garia eta artilea. Kostaldeko eremuak, nekazaritzan behartsua, esportaziora zuzendu zuen burdingintza. Merkataritza

honi esker, populazioaren horniketa bermatu zuten. Gainera, gure kaltetako kokapen estrategikoari esker, garai hartako potentzien (Gaztela, Frantzia, Ingalaterra...) arteko elkartruketako ikusleak izan ziren. Bilbao, Gaztelan ekoizturiko artile merkataritzaren garapenerako gun estrategikoa izan zen. Gure kaiak, koloniar produktuen (tabako, kakao, azukre) merkaturaketarako funtzesko gunek izan ziren.



### 3. Euskal Herriko historia.

Guzti honen ondoria, Caracasko Erret-Konpainiaren sorketa izan zen (Donostian, 1.728.ean).

Nazioarteko merkataritzak, barietate handiko produktuen sarrera erraztu zituen. Horrexegatik, merkatal kapitalaren hedakuntza indartsua izan zen. Merkatariak, trafikotik haratago joan ziren, harreman sozio-ekonomikoetan eragin haundia izan zuten, Euskal Herriko integrazioa, Espainiar eta Frantziar erregetzen markoan defendatu zuten...eta, beren etikarik gabeko praktika espekulatiboak direla eta, gatazka sozial gogorrak sortu zituzten.

Bale arrantzan, euskaldunak, benetako adituak izan ziren, balearen produktuen banaketaren ia monopolistak izatera ailegatu arte. Balea urritzen hasi zenean, gure arbasoak, gero ta urrunago joatera behartuak izan ziren, lehenengoz, Galizarantz, gero Iparalderantz (Irlanda, Islandia, Ternua, Groenlandira ailegatu arte).

Bale arrantzaren urrezko mendea, XVI.a izan zen, Ternuari esker. XVI. eta XVII. mendeetan, Erregeek, sarritan, balearrantzaleei "korsu

patente" ematen zien. "Bizibide" hau, garai batetan ere, ia ia euskaldunen monopolioa izan zen.

Erdi Aroan, Hegoalde bere aduanak Gaztelako mugan zituen, beraz, Erret Haziendari ezer ordaindu gabe, arazorik gabe esporta eta inporta zezakeen. Halako zerbait gertatzen zen Baionan eta Lapurdiko kostaldean. Errege Katolikoek garaietan, erret-esku sartzeak hasi ziren. Debekatuta zegoen, esate baterako, "etsai potentziek" merkataritzan jardutea. Espainiar edo frantses barruko merkaturak sendotu ahala, euskal libertateen aurkako erasoak aragotzen ziren. Tabako bezalako produktuen posibilitate fiskalak izugarriak ziren. Horregatik, kontrol erdirakoa eta kontraforuak gero ta sarriagoak ziren. Madrilen, trafiko bikoitza egiten zela esaten zen, alde batetik, Gaztelan, produktuak iruzurkeriaz sartzen zirela, bestetik, Lapurdira eta Europara Gaztelako dirua, legez kontra ateratzen zela. Dauden informetan, merkatarri handiak bakanka agertzen dira kondenatuak; kontrabandista txikien aurka ekin eta ekin ibili zen jazarpen erdirakoa, batez ere.

# Euskaldunen

## kaperatasun unibertsala.



Kontzeptu hau eta berari dariona, foru-auziarekin batera, berotasun gehiago eta zehaztasun zientifiko gutxiagoz defendaturiko edo erasoturiko arazoetariko bat izan da. Ez da harritzekoa, zeren hauexek baitira, bere etorkizuna kanpoko eskusartzerik gabe erabakitzeko Euskal Herriak duen eskubidea justifikatzeko -edo, ideologiaren arauera, ukatzeko oinarria. Analisia, erabateko objektibotasunaz egiteko txosten nahikoa dago. Hau lortzen saiatuko gara.

Ikusi dugunez, Ahaide Nagusiek, haiek "odol garbaiagokoak" zirela defendatzen zuten, beraz, aginte handiago eduki behar zutela. Ikuspen honen aurka zegoen "balore berdinekoa", euskal leinuzko antolakuntza sozialari zegokiona. Ahaide Nagusien porrotak, kaperatasun unibertsal kontzeptua indartu zuen, batez ere inba-

### 3. Euskal Herriko historia.

sio gutxiago izan zuten lurraldeetan, hots, gudak eragiten duen estratifikazio soziala sendotu gabe dagoen tokietan. Gipuzkoa eta Bizkaian, "balore berdineko" kontzeptua hedatu zen, batipat.

Kontzeptu honek suposatzen zuen homogeneousazioa, garai hartan, urrats aurrerakoi bat izan zen, Rousseau, Humboldt... bezalako pertsonentzat, eredu bat. Kaperatasun edukitzeak zera esan nahi zuen: bizitza publikoan partehartzeko gaitasuna, tortura ez pairatzeko babes, soldadutza ez egiteko eskubidea, eta, batez ere, zergarik eza. Datu esanguratsu bat, Gaztelan, kapareen proportzioa 1/113 zen bitartean, Bizkaian eta Gipuzkoa 1/2. Kaperatasun unibertsalak auzotasun neurri oso itxiak eskatzen zituen: mairu, judotar, ijito, eskale, beltz eta mulatoen kanporatzea, odol espuria izateagatik, maioraz-

koarenn egonkortasuna... Kaperatasun unibertsala ez zen arrazakeria kontu bat, baizik eta baliabide urriko ekonomia bat erregulatzeko mekanismo bat. Maiorazkoa, adibidez, herriko seme propioekin oso krudela, ankerra zen, arrazoi berdinegatik.

Eztabaida gogor baten ondoren, Madrilek, euskaldunei kaparetasuna ezagutu zizkien, 1.610.ean. Kaperatasun mota honek, erresumina sortu zuen gaztelarrengan, zeren haientzat esku lana arbuigarri baitzen. Ezin zieten ulertu euskal kapareei, inolako lotsarik gabe edozein motatako lanbidea garatzeko gai zirelako.

Ez da beharrezkoa esatea, berdintasun juridiko hau enunziatu orokor bat zela, bere jardunbide, talde sozialen artean zegoen indar erlazioen araberrakoa zela. Interpretazio deberdinak

zeudela erraz ulertzen da: esate baterako, klase xeheek, kaperatasunak ondasunen banaketa esan nahi zuela defendatzen zuten, Handikiek, noski, inondik inora onartzen ez zutena.

XVI. eta XVII. mendeetan, Kaperatasun unibertsalean eragin negatibo izan zuten garrantzi handiko aldaketa sozioekonomikoak sortu ziren. Ondasunaren bilketa haundia, Karlistadetan funtzeko paper bat izango zuen oligarkia baten sorketa eta Foru-abolizioa. Oligarkiak, bere botere politikoa haunditzeko, kargu batetan jardun ahal izateko, erromanzea hitzegitea eta idaztea, eta jabea izatea beharrezkoa zela eskatzen zuten ordenantzak bultzatu zituen. Helburua zen, noski, boteretik klase xeheak aldentzea. Udaletxeak eta Juntak (Batzar Nagusiak), oligarkiaren alde jarduten hasi ziren...

# Betiko

# eztabaida.



Erregetza Absolutuak, Euskal Herrian bere boterea hedatzen zuen bitartean, bi pentsakera sendotzen ziren, batez ere Felipe II.aren garaiatik aurrera. Alde batetik, boterearen tesia -"ofiziala"-, zeinak Euskal Herria indarrez "hartuta" izan zela eta, ondorioz, Foruak, garailearen eskuzabaltusunak emaniko pribilegioak zirela defendatzen zuten. Menperatuek "paktu" nozioa sortu zuten, hots, euskaldu-

nek, koroa ezagutu zuten itun baten bidez. Godoy-ren garaia, batez ere, zentralismoaren eraso oso gogorra izan zen, hala arlo fiskalean nola jarraian eginiko kontraforuen zerrenda, zein arlo ideologikoan. Helburua zen Euskal Herriaren eta Gaztelaren arteko desberdintasunak markatzen zituen edozein seinalea deuseztatzea. Ikus dezagun euskararekiko jarrera: "los sonidos simples del vascuence son los

### 3. Euskal Herriko historia.

mismos que en castellano y otras lenguas"... "es un guirigay latino-galo-francoscita... una algarabia; un lenguaje grosero y bárbaro..."

Zentralismoaren erasoak alderantzizko eraginak sortu zituen: iraganekiko euskal burubaiezpen edo autoafirmazioa, hizkuntzaren defentsa sutsua...eta gure Historiaren mitologizazioa (hortik sortu ziren, foruzaletasuna, karlismoa, aranismoa...). Larramendirentzat, adibidez, paktu bat izan bazen, hau bi estatu burujaben artekoa baino ez zitekeen izan. Gaztela ituna apurtzen saitzen bazen "apur dezagun, zeren ez zaizkigu faltako frantsesen edo ingelesen eskaintzak".

Guzti honen ondorioz, Kaperatasun Unibertsala, Foruak, Hizkuntza eta Erlijioa erabat batuta egon ziren garai hartan. Antzinako euskal iragana, itzuli behar zen egoera hobezin, demokratiko bat erlazionatzen zen. Denbora igaro ahala, panperialismoaren erasoak indartzen joan diren neurrian, iragan idealizatu honek, indar gero ta haundiago hartu du, eta indar honetan, aurre egiteko, gure etorkizunaren jabe izateko daukagun eskubidea exijitzeko oinarritzen gara.

# Errebolta

## sozialak.

Gure Historia ez da bakearen islada bat, ezta urrik eman ere. Klase arteko istiluak ia ia etengabe sortzen ziren. Egoera hauek adierazateko daukagu "matxinada" hitza. Bere jatorri etimologikoaz hitz egin dugu orri hauetan.

Matxinadak, batez ere, kostaldean sortu ziren. Garapen ekonomikoak nekazaritzaren menpe ez zeuden populazioek sortu zuten eta biztanleria hauek, normalki, itsasotik hurbil finkatu ziren.

Eskabide ekonomikoak, sarritan, kontraforuen salaketekin batera ematen ziren. Europa osoan gertatzen den bezala, eskabideak, bizi-raupenekoak ziren, iragan hobezin baten eskatzen zutenak eta zegoen Sistema ez zuten salatazen. Istilu hauetan, emakumearen papera bizia, oso, izan zen, erraz frogatu daitekeenez.



### 3. Euskal Herriko historia.

1.631. ean, "matxinada" ospetsuenetariko bat gertatu zen, "Gatza mutina"- "Motin de la Sal"- zeritzona. Gaztelako Erregetzak, "Gatza Estankoa" zeritzona erabaki zuen, zeinak gatza eta bizikostua larriki garestitzen zituen, arraina eta okelaren konserbaziorako ezinbestekoa zelako. Beste datu garrantzitsu bat gehitu behar da: Bizkaiko Batzar orrokorrak jadanik nekazaritzako oligarkiaren menpe zeuden, (bileretara joan ahal izateko, beharrezkoa zen gaztelera idazten eta hitzegiten jakitea, ondasunak izatea...). Hau guzti hau dela eta, matxinatuek, batzarkideei eta bilbotar jauntxo batzuei, traidoreak deitzen zizkieten.

Matxinatuek, hiria inguratu zuen, gaztelarrek hartu zuten parte, zenbait burukide urkatuak izan ziren. Azkenik, estankua indargabetu zen eta presoak amnistiatuak.

Iparraldeak, ere, ia etengabeko egoera matxinatuta ezagutu zuen, XVII. eta XVIII. Mendeetan. Richelieu-k hasi zuen hiperdirakoi prozesuarekin guzti honek bat egitea, ez da kasualitatea. Euskal legeen eta usadioen aurka erasoak etengabekoak izan ziren (zergak, derrigorrezko

soldadutza...), herritarrek errefusatzeko duten birfeudalizazio prozesua egiten zen eta jarduera batzuk -arrantza, batez ere- krisian zeuden bitartean.

1.718. ean, aduanak kostaldera lekualdatu zituzten, hau dela eta, beste "matxinada" historiko bat sortu zen. Erabaki hau, Gaztelako Zentralismoari eta berari lotuak zeuden jauntxoei interesatzen zitzairen eta merkataritza talde batzuen interesen aurka, eta, batez ere, klase herrikoiaren aurka zegoen. Azken hauentzat, aduanetako lekualdatzeak, premia bizikogaien garestitzea suposatzen zuen. Matxinoek, Bilboko Merkatal Oligarkia eta jauntxo foralak gogorki salatu zituzten.

Zentralismoak ankerki, odol gogoz, erreprimitu zuen. 1.723. ean, aduanak, bere antzinako lekuetara eramantzen zituzten.

1.766. ean, Gipuzkoan, beste "matxinada" bat sortu zen, eskaste egoera baten, prezioen eta gari-zirkulazioaren askatasuna indarrean ipintzen zuen erret dekretu batek eraginda. Prezioen igoera arranditsua izan zen. Matxinoek, pilatzaileak eta espekulatzaileak erasotu zituzten.

Baina, kasu honetan, errepresioa ez zen Gaztelatik etorri, baizik eta Donostiako burgesiak bultzaturikoa izan zen. Honek, "matxinada" itotzeko, hiriko ingurune esanguratsuetan, garia merke-merke banatu zuen.

1.804, "Zamakolada" ospetsua sortu zen. Nekazaritzako Oligarkiak, burgès bilbotarrek inposatzen zuten nagusikeriatik atera nahi zuen. Horretarako, Zamakolak, Abando auzoan, kai berri bat eraikitzea proposatu zuen. Hasieran, klase herrikoiak ados zeuden Zamakolaren egitasmoarekin. Dirudienek, eukaldunentzako beharrezko soldadutzaren truke lortu zuen Zamakolak Zentralismoaren onarpena bere egitasmoarentzat. Berria zabaldu zenean, elizateko herritarrek armak hartu zituzten. Burges bilbotarrak eta jauntxoak batu ziren, "ordena" berripintzeko. Erret Armadak, beste behin, bere "Bakea" inposatu behar izan zuen.

Godoy-k, gertaera hauek aitzakitzat hartuta, urte batzuetan, euskal libertateak indargabetu zituen, eta -grabeena-, foru-abolizioari, bidea ireki zion.

# Frantses iraultzaren eragina.



"Estatu Orokorrak" izeneko gertakari deialdiak - erregetzaren finantza-arazoei eraginda- gizarteko eta instituzioetako ustekabeko aldaketa erradikal bat sortu zuen. Iparraldeko euskaldunek, hori dela eta, gogoan dituzte abolizioa eta odolezko pertsekuzioak.

Iparraldean, Euskal Herri osoan bezala, zuzeneko demokrazia indarrean zegoen. Lapurdiko Biltzarrean ez zeuden ez klerorik, ez kaparrerik. Zuberoan, "Silbiet"-en papera esanguratsua zen kapareena eta kleroarena baino. Behenafarroak, antzeko ezaugarriak zituen.

Erdi Aroan, erregeek, instituzio hauek errespetatu zituzten. Baina 1.450.etik aurrera -frantses konkistaren data-, Zentralismoaren erasoak areagotu ziren, gogorki. Zinak eta konpromisuak izan arren, Borbonen "indarra"-k bere "legea" ezarri zuen.

### 3. Euskal Herriko historia.

Erresumaren barruti bakoitzak, kapare bat, elizgizon bi eta hiru herritar aukeratzeko zituen. Hiru euskal lurraldeak, doi-doi ezagutuak izan ziren beren diputatuak aukeratzeko.

1.789.Eko, Martxoan eta Apirilean, Lapurdik eta Zuberook, bere ordezkariak aukeratu zituzten. Lapurtarrek eta Zuberotarrek, Erdi Aroan beren instituzioak zeuden bezala exigitzen, bat egin zuten. Nafarrek, uko egon zioten diputatuak Estatu Orokorrei bidaltzeari, zeren Nafarroa, "beste erresuma bat" baitzen. "Diputazio" bat bidali zioten Erregeari, beren eskubideen berriztapena eskatu zuten eta Erregeak Foruari zin egin ziezaiola. Ez zitzairen kasurik egin, baina bai, "bigarren Orreaga" batez mehatxatuak izan ziren. Estatu Orrokorrak, Batzar Konstituziogile batetan bihurtu ziren, zeinean, 1.789.eko, Abuztuaren 4ko gauean, delirio kolektiboko egoera batean, "Lurraldeetako eskubide propio guztiak abolituak eta frantses guztien eskubide

arruntean nahasiak" izan zitezela erabaki zuten. Horrela, hain zuzen, Euskal Gizarteak, mendeetan zehar sorturiko instituzioak, ezabatuak izan ziren.

Garat Anaiek, hasieran giroak kutsaturik egon zirela, protestatu zuten. Ohiuen bidez isilduak izan ziren eta prentsa zentralistan, "demokrazia" onartzen ez zuten herri baten aurka hasi zen hitz egiten...

Herrilurren utziera eta galera, jabe txikien hondamena, kostadeko txirotea eta Gipuzkoak, Lapurdik eta Bizkaiak osatzen zuten batasun ekonomikoaren suntsiketa, soldaduen erreklutamendua, krisi ekonomikoa, pertsekuzioak...eta, ondorioz, Hegoalderantz eta Ameriketarantzako migrazioa...

Jakina denez, Iraultzak, terrorerantz jo zuen. Gure Herriak, hizkuntzak, bizimoduak eta ekonomiak batuta, eta inposaturiko "Demokrazia"-ren aurkakoa, derrigorrez, terrorearen bik-

tima izan behar zuen. Euskaldunak, "siniskeriaz, kontrabandoz, traizioa eta desertzioz" akusatuak izan ziren.

Delirio errepresiboz, Sara, Itxassou eta Azkaingo biztanleak, Landeetara, Goi Pirinioetara deportatuak izan ziren. 1.600 deportatu hil ziren eta galera ekonomikoak izugarriak izan ziren. Kaltetuak: nekazariak, artzainak, artisauak, apaizak, morroiak...

"Demokratek", bai Hegoaldeko zein Iparraldeko euskaldunei, euskararen erabilera aurpegiratzen zieten. Terrorearen praktikari batek esan zuen "fanatismoak euskara hitz egiten du". "Patois" (frantses ez ziren dialekto eta hizkuntzak) guztiak desagertatzea erabaki zen...baina "iraultzaileek" euskara sarritan erabiltzea beste erremediorik ez zuten izan. Protestanteek ere, eraginkotasun arrazoiengatik, euskara erabili zuten. Horregatik sortu zen, harribitxi historikoa den Leizarragaren "Testamentu berria".


# Karlistadak.

Karlistadak, beren jatorria eta motiboengatik, gure Historiaren faltsukeriak beteta dagoen gertaera historiko bat da. Ez da erraza erabateko objektibitate bat lortzea, datuen eskasiagatik edo daudenak subjektibitatez beteta daudelako.

Batzuentzat, Karlistaden funtsezko helburua, Foruen alde borrokatzea izan zen. Hortik, altzamen-

duaren izaera masibo eta klaseartekoa, Espainiako Armadaren isolamendua, "Bake eta Foruak" konsignaren pisu espezifikoa. Horrela itxuratu zen armetan ipinita herri baten irudia, bere legeen eta instituzioen defentsan, botere zapaltzaile baten aurka.

Baina bestelako irakurketa bat badago: beste batzuentzat, Foruen auzia,



### 3. Euskal Herriko historia.

bigarren mailakoa izan zen, esate baterako, foral milizien armetara, karlisten sarrera errazteko. Lehendabiziko dei karlisteetan, Erlijio, Espainiar Trono eta Aberriaren izenean bultzatzen zen guda egitera. Karlismoak, absolutismo eta Antzinako Erregimenera itzulia defendatzen zituen.

Hain desberdinak diren hasierako puntuez, zaila gertatzen da, guda hauetan, Foruen papera zehatzea. Beharrezkoa da ahalegin haundi bat egitea eta egoera hartako errealitate soziopolitikoan zentratzea, Euskal Foruen balio anitza eta mugimendu karlistaren konplexutasun soziala aztertzea. Karlistadetan, bi inpulsuren izankidetasuna ezin da ukatu: alde batetik, biziraupen materialaren aldeko klase herrikoien borroka, bestetik, nortasun propioen aldeko lehia. Horregatik, nortasun propio horiek (Hizkuntza, usadioak, legeak, jatorrizko instituzioak...) hainbat ta biziagoak, matxinada karlistarekiko herritar atxekimendua, gero ta haundiagoa izan zen. Arrazoi honengatik, karlismoa, Euskal Herrian indarki errotu zen, gutxiago Katalunian eta indar eskasaz, Gaztelan, Murtzian, Andalusion eta Estremaduran. Jarraitu baino lehen, azter

dezagun euskal gizarte aurrekapitalistaren gainegitura juridiko-politikoa izan ziren Euskal Foruen funtzioa:

-Harreman amankomun sozialak arautzen zituzten (klase hierarkia eta klaseen arteko harreman paternalistak sendotzen zituzten).

-Antolamendu ekonomikoa xedatzen zuten (herrilurrak, nekazaritza, ohiko industria, fiskal onurabideak, aduana..).

-Gizakien eta taldeen herri agintera sarrera arautzen zuten.


-Euskal Elkartearen kanpoko harremanak zehazten zituzten.

Burgesia liberalaren Foruei buruzko jarrera aztertzea, ezinbestekoa da. Foruak, beren interes ekonomikoen hedapenerako, galga bat ziren eta indar produktiboen askatasunerako, ostopo. Arlo politikoan, haienez, Foruak, Espainiar Batasun Konstituzionalaren aurkako eraso bat ziren, pribilegio onartezin bat, Lege aurrean herritarrek izan behar zuten berdintasunaren aurkakoak. Baina, Lehenengo Karlistada aurrera joan ahala, euskal liberalen jarrera ezberdintzen hasi zen. "Aurrerakoi" izenekoek, Foruen aurka jarduten jarraitzen zuten. "Moderatuek", -euren artean zeuden nekazaritzako jabe haundiak-

, aldiz, Foruen zati bat -beren ondasunak babesten zituenak- gorde behar zela zioten, joera erradikalagoak eta iraultzaileagoak geldiarazteko erabili zitezkeela.

Euskal Nekazaritzako Oligarkia Foruak idealizatu zituen, berdintasuna, justizia, ordena eta kontsentzu sozialaz haiei emanaz. Baina Sistema Foralak, aginte lokalaren monopolioa bermatzen ziela, Ospetsuekiko nekazarien menpekotasuna legeztatzen zuela eta gizartearen balio paternalistak mantentzen zituela, isiltzen zuten. Oligarkia honentzat, Foruen defentsa, beren botere arlo propioen defentsa zen.

Klase herrikoiek, agian, Fueros kontzeptuan ez zituzten balore gorenak aurkitzen, zeren boterearen jarduerarekin identifikatuak zuden, oso. Baina Sistema Foralak, politika hutsarena baino funtzio askoz biziago bat zuen, zeren harreman sozialak xedatzen zituen eta, batez ere, biziraupen oinarri materialak bermatzen zituen: herrilurrak babesten zituen, ohiko industria zaintzen zituen, Ebro ibaian zegoen aduana sistemak bizibide merkeak bermatzen zituen, soldadutza sahiesten zuen eta zergen presio baxu bat man-



### 3. Euskal Herriko historia.



tentzen zuten. Hau guzti honengatik, sarritan, ez zen posible Foruen defentsa eta klase herrikoien bizibaldintzen defentsa bereiztea.

Beharrezkoa da, baita ere, mugimendu karlista bera aztertzea. Egokitasunik handiena karlista dei zitekeen sektorea, Don Karlos, Espainar Koroaren erregegaia, inguratzen zuten kaperreek eta militarrek osatzen zutena zen. Beren helburu estrategikoak, tronoaren konkista eta erregimen absolutistaren berrezarpena ziren. Hauek, ideologi, militar eta diplomatiko aparatuak kontrolatzen zituzten. Horrela inposatu zituzten beren helburu militarrek, buruzagi herritarrek -zeinek euskal errea-

litate herritarrari arreta haundiagoa ematen zioten- zituztenen gaineratik.

Haiekin bat egin zuten nekazaritzako ospetsuek, klero apalak, eta klase herritarrek, hala baserrietan nola hirietan. Gobernuaren helburua, bakarrik, burgesia liberalak eta jabe handiek defendatu zuten.

Lehenengoz sortzen den galdera zera da: populazioaren arazo errealetatik erabat kanpo zeuden eskubide dinastiko batzuen defentsarako matxinada armatuara eginiko deiak, nola aurki zezakeen hainbetse atxekimendu euskal gizartean. Erantzuna, bakarrik aurki daiteke euskal gizarte aurrekapitalistaren krisian (ohiko industriaren gainbehera, merkatuen galera, populazioa mantentzeko nekazal ereduaren ezintasuna, atzerapen teknikoa, garai berrietara egokitzeko ezgaitasuna...). Bestaldetik, borbondar gudek eta Napoleonen aurkako Independentziaren deiak, bultzatu zituzten suntsiketak eta zorpeketak, klase herritarren hondamena eragin zuten. Gainera, herriluraren desamortizazio masiboa gertatu zen.

Irudi hau osatzen da, 1.820. ean, prezioen etengabeko gorakada batek, gabestia areagotu eta nekazal soberakinaren klase hartzaileen nekazaritzako ospetsuak eta klero apala-hondamena eragin zuenean.

Krisi honen dimentsioak, artzaintza, kontrabando eta lapurkeriaren bidez, mendietan bizirauten ziren bazterreko taldeen sormena bultzatu zuen. Matxinadetan, gehiengotar klaseak, deskreditatu ziren, erabat, eta instituzioak kontrolatzeko Nekazaritzako eta Hiriko oligarkien arteko aurkaketak, errealitate ekonomiko eta politiko berrietara egokitzea eragotzi zuen eta eraso liberalaren aurkako Sistema Foralaren defentsa ostopatu zuen.

Krisia, bere goren puntura heldu zenean, liberalismoa zegoen miseriaren azken arrazoitzat identifikatu zen. Bere batasun konstituzionalaren defentsa gogorak, nekazaritzako ospetsuen boterea, arriskuan ipintzen zuen. Horregatik, hauen aurkaketa areagotu zen. Bestaldetik, elizako ondasunen desamortizazioa, "dexe-ma"-ren abolizioa eta botere-

aren izaera laikoa defendatzen zituen. Hori dela eta, elizjendearen oposaketa izan zuen. Halaber, Foru-abolizioa defendatzen zuen. Jakinaenez, abolizioak klase herrikoien txirotzea eragiten zuen. Azkenik, nabarmengarri zen, bere euskal nortasunaren zeinu askorekiko mesprezua (euskara, instituzioak, tradizioak...).

Iraultza liberalak, antzinako oligarkien boterea erasotzen zuen eta klase herrikoientzako nolabaiteko jarduera positiboa sortu ahal izan zuen, baina ez zuen egin. Nekazariak, artisauek eta talde marginaletan, beren iraultza ez zela, erraz ulertu zuten. Liberalen erabakiak, aberatsuen onerako eta txiroen kalterako izan ziren. Proletarizazio gordin baten truke, harreman patriarkalak eta sozialak deuseztu ziren, zeinek bizirapunaren oinarri batzuk ziurtatzen zituzten. Logikaz, liberalen aurkako sentimendu bat sortu zen klase herrikoien baitan. Ospetsuekiko eta kleroarekiko klase herrikoien menpekotasunak sentimendu hau areagotu zuen, nekazarijendearen eta klase herrikoien alternatiba propien sorketa eragotzi zuen bitartean. Guzti

### 3. Euskal Herriko historia.

honek izan zen kontraesana azaltzen digu, hots, karlismoa, klaserik txiroenen partehartze masiboak sustatua izan arren, ideologia karlistarengandik, kasu bakan batzuetan baino ez ziren sortu, klase herrikoien beharrak asetzen zituzten erabakiak.

Behar-beharrezkoa da Gudak-Foruak erlazioa aztertzea, batez ere, oso gutxitan argitasunez eta objektibitatez ikusita izan den, egoera hartan izan zen kontraesan hau.

Zuzendaritza Karlistak egin zituen deiek, ia ia ez zuten egiten Foruen aipamenik. Don Karlosen laguntaldekak, guda dinastika, atzerakoa, eta espainolista batera deitzen zuten. Euskal Herrian baino ez zuten lortu atxekimendu masibo bat. Eta hori gertatu zen, karlisten deiak, gizarte kapitalistaren krisiak eragindako arlo sozial zehatz batetan erori zirelako. Klase herrikoiak, Sistema Foralari oso lotuak zeuden biziraupen oinarrien alde matxinatu

ziren. Herritar ospetsuek eta kleroren zati handi batek, bere nagusitasuna euskal gizartean gorde nahi zuten, eta Sistema Foralak helburu hau, baimentzen zien. Ospetsuak eta kleroa, liberalen aurka jendetza batzen zuten katemaila ziren. Horrexegatik, guda aurrera joan ahala, foralismoa eta integrismo erlijiosoa, sendotzen ziren. Bigarren Karlistadan, Foruen auziak, garrantzi handia hartu zuten. Euskal Herria sortu zen Estatu Karlistan, Foru Aldundiek, Antzinako Erregimenean zegoen autonomia baino haundiago bat izan zuten. Horrela, gizarte prekapitalistaren klase gidariak, herritar borroka, bere eremura erakarri zuten. Hau guzti honengatik, XIX. mendean herritar mamirik handiena izan zuten mugimendua, kausa atzerakoi baten serbitzuan ipini zen.

Lurjabe eta desamortizazioen onuradun asko, bando liberaletik karlistara igaro ziren, Isabel II. hil eta gero. Karlismoan, demokrati-

zazioren aurrerapenaren eta langile kontzientziaren sorretaren aurkako sostengu bat bilatzen zuten. Ia guztiek, Bigarren Karlistadaren porrota baino lehen, karlismoa utzi zuten. Behin-betiko porrota gertatu arte borrokan jarraitu zutenen artean, Ekonomia Kapitalistari lotuak zeuden klaseak, eta hirietako populazio txiro eta marginala zeuden

1.876.ean, ez zen, ez negoziatorik, ez akordiorik, erabateko garaipen militar bat zen eta, Karlismoz amaierako deuseztapen batez bukatu zuten. Burges Liberalismoak, bere helburu ekonomikoak lortu zituen, Ekonomi Itunez geroko hobariz barne eta Espainiar Estatua, izaera bateratzaileaz eta erdirakoziaz egitura politika bezala finkatu zen. Euskaldunen gehiengoak, karlismoari emaniko sostengu sozialagatik, erregimen liberalak, Sistema Instituzionalaren suntsiketa erabaki zuten, 1.876.ko, Uztailaren 21ean, promulgatu zen foru-abolizio legearen bidez.

# Hegoaldeko banaketa instituzionala.



Lehenengo Karlistada, "Bergarako besarkada" ospetsuez bukatzerakoan, 1.839.ko Urriko Legea sinatu zen. Lege honek lehenengo artikulua zera zioen: "Se confirman los Fueros de las Provincias Vascongadas y de Navarra, sin perjuicio de la unidad constitucional de la Monarquía". Esakune esanguratsu honetatik aurrera, Foru-abolizioa gero ta hurbi-lago zegoen.

Aurreko hamarkadetan, Foruak ezereztatuak eta berriztatuak izan ziren behin baino gehiagotan, baina prozesu abolitorioa benetan 1.839.enetik aurrera gorpuztu zen. Urriko Legeari, Azaroan, Erret Dekreto batek jarraitu zion, zeinak Sistema Foraleko sakoneko aldaketak suposatzen zituen. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako

### 3. Euskal Herriko historia.

Foru Aldundiek, guzti honi aurre egitea erabaki zuten, baina Nafarroakoak 1.839.ean "foral" izatetik, "probintziala" izatera igarozen. Dekretoak onartzea eta Nafar Foruaren aldaketa bat egitea erabaki zuen. Une honetan hasi zen Euskal Herriko banaketa instituzionala.

Madrileri lotuak zuden Nafar sektoreek, beren eritzia inposatu zuten. Donostiako Udaletxeak, interes burgesak defendatzeko, Espainiarekin erabateko bateratze baten aldekoa, Nafarroan integratzea eskatu zuen.

1.841. eko Lege Paktatuaren bidez, Nafarroa, probintzia arrunt bat bihurtu zen: Militar Gobernua eta Justizia, Estatuko Jurisdiziora pasatu ziren, mobilizazio militarra izatekotan, Nafarroak ekarri behar zuen kupoa erabaki zen, baita Estatu-Ogasunari eman behar zion diru-kopurua, aduanak, behin betirako Pirinioetan kokatu ziren...eta izaera fiskala eta administratiboa zituzten abantaila batzuk. Guzti honek, foru-abolizioa onartzeko, hain otzan izan zen gizarte-klasearen aberasketa erraztu zuen.

1.876. eko, Uztailaren Lege abolitzailea indarrean ipini zenean, Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak, beren Foruen zati haundi bat mantendu zuten. Hauek, 1.842.ean, Esparterok abolitu zituen, baina "Moderatuek", 1.844.ean berrezarri zituzten, aduanei eta foru-baimenari zegozkiena salbu. 1.844.etik-1.876.era, talde menperatzaileen planteamenduek, karlistengandik, Espainian baldintzarik gabe sartzeko aldeko engana, "foruzale" dei genezakeen joera batetan bat egin zuten. Talde hauek, Probintzia Baskongadetan indarrean izan ziren Ekonomi-Itunak (eta Lege Paktatuaren arauera, Nafarroan zegoen Ekonomi Hitzarmenaren antzeko funtsa zutenak), izan zituzten. Funtsean, Estatuak utzitako zerga batzuen bilketan onarritzen ziren. Instituzioak kontrolatzen zituzten oligarkek, zeharkako zergak bortizki kargatu zituzten, jabetzaren eta industriaren gainekoak askoz moderatuagoak ziren bitartean, azpiegiturazko gastuek, industriari onerakoak ziren, hobekuntza sozialak ia ez ziren kontutan hartzen..

# Industrializazioa.



Lehenengo Karlistada bukatu ondoren, Euskal Ekonomian inflexio-puntu indartsu bat sortu zen, Bizkaian eta Gipuzkoan gertatu zen eraldaketa industrialak bultzatuta. Hori izan zen, gure Herrian Iraultza Industrialaren ezarpenaren hasiera.

Erabat antiherritar zen Ebrorainoko aduanen lekualdaketak bultzaturiko proze-

suaren bidez, Hegoalde, espainiar merkatuan sartu zen eta euskal produktuak, beraz, oso babestuta zegoen merkatu batean.

Deslotze hau gertatu zenean, gure Herrian zegoen egoera historikoa, ezinbestez aztertu behar dugu. Alde batetik, Munduko Ekonomia, egoera zabalkor baten zegoen, zeinak industri berriak bultzatzen zituen. Bestetik, orduan, etsai adizkidezinezko bik, instituzioak kontrolatzen zituen nekazaritzako oligarkiak eta burguesia liberalak, isilbidezko itun bat sinatu zuten. Foruak, praktikan, autonomia fiskal batera murriztuak geratu ziren. Burguesia liberalak, instituzioetan sartzea lortu zuen, anti-foralismo amorraturik izate-tik, nolabaiteko izaera fuerista

### 3. Euskal Herriko historia.

izatera igaro zen. Antzinako nekazaritzako oligarkiak, Foruen murrizketa onartu zuen eta ahal den neurrian, bere boterea mantentzeko paratu zen.

Foru Aldundietako gaitasun fiskala, kapital metaketa errazteko erabili zuen Oligarkia Probintzial berri bat jaio zen, zeharkako zergak kargatuz eta industriari zegozkion zergak, ahalik eta gehienen leunduz. Euskal Foru Aldundiak, azpiegiturak sortzen nabarmendu ziren (ibilbideak, garraioak, kaiak etab.).

1842.etik aurrera, industria berriak agertzen dira Bizkaian eta Gipuzkoan, funtsean, espainar merkaturako beren ekoizpena zuzenduz, 60ko hamarkadara arte. Hemendik aurrera, bizkaitar industria, nazioarteko mekatura norabidatu zen, gipuzkoarrak espainar merkatuari lotuta jarraitu zuen bitartean. Gipuzkoan, lantegien kopurua mendearen bukaera arte hazi zen, kontsumitzeko ahalmen motzak eta espainar merkaturaren nekazaritzako izaerak murriztuta zegoen. Horregatik, gipuzkoar industria, eskala-ekonomia baxue-

tara kondenatuta geratu zen, bai eta atzerapen teknikora eta elkarlehia eskasera. Hori dela eta, kontsumorako ekoizpena nagusitu zen, (ehungintza, papergintza, kimikagintza, elikagintza, burdingintza, portzelana...). XX. mendearen hasieran, nekazaritzako populazioa nagusi zela esan behar da. Kapitalak, hain babestuta zegoen merkatuak erakarriak ziren, herritar ospetsuek, eta Europako kapitalistek ipinita.

Zonalde industrialen hazkundera ezohikoa izan zen, Bizkaian eman zen intentsitaterik eta kaosik gabe. Mendearen bukaera arte, gutxienez, lanekuaren iturria, bertako jendea izan zen. Horrexegatik, zonalde industrialak, era konpensatorik hazi zen, etorkinen etorrera masiborik gertatu gabe. Honek, zatiketa soziala eta hazkunde demografikoaren izugarritzko prozesuan eman diren aurkaketak, leundu zituen, bertako egitura ideologiko-kulturala mantentzea bermatu zuen, eta tradiziozko izaera paternalista industrian sartzea erraztu zuen, langile kontzientziaren jaiotza ostopatzeko bitartean.



Hau guzti honengatik, erraz ulertzen da, Gipuzkoako Industriaren tamainua, mozkinak eta kapital-metaketa, Bizkaikoak baino azkoz txikiagoak zirela. Gipuzkoako Industriari boterea eta eragipen, probintziara mugatuak ziren.

Mendearen bukaeran, baita ere, hasi zen somatzen Gipuzkoan, Bizkaiko Industriaren hedapeneren eragina. Gipuzkoako Bankua, kapital bizkaitarraz jaio zen, metalgintza hedatzen zen siderugia bizkatarraren gerizpean eta kapital bizkaitarra, papera eta argi indarra bezalako sektoreetan sartzen

zen. Baina eredu gipukoarrak ba zituen bere funtsezko egitura.

Bizkaian, altzairuaren ekoizpenerako Bessemer Sistemaren aurkikuntzak, erabateko eragina izan zuen. Fosforik gabeko mineralak behar zituen, Bizkaian ugari zeuden "hematites" izenekoak.

Ingelesek, frantsesek eta belgiarrek egiten zuten mineral honen eskaerak, esportazio handiak bermatu zituen, 60. hamarkadan. Hauek, untzigintza areagotu zuten eta Nerbioko itsasadarrean, burdingintza indartsu baten sorketa. Bizkaiko bur-

### 3. Euskal Herriko historia.

dingintzaren lehiakortasunak, kaiaren eta meategien hurbiltasuna eta esportaturiko mineralen truke, ingeles ikatzaren lorturiko salneurri ona, zituen oinarritzat.

Kapital-metaketa, Euskal Industriak orduan zuen dimentsiorako, izugarria izan zen. Zati bat, lurralde inportatzaileetara itzuli zen eta gainontzekoa, Bizkaiko ekonomian eta gizartean, ari-neketan hegemoniko bihurtu zen familien talde txiki baten eskuetan geratu zen. Honek, Estatuko finantz-erakunderik garrantzitsuenak sortu zituen eta, logikaz, erabakiak hartzeko Estatuko guneetan sartu zen.


Siemens eta Thomas Martin izeneko tekniken agerpenak, industrian, norabide-aldaketa bat eragin zuen. Metodo hauek, fosforik gabeko mineralak erabiltzen zuten, bizkaitar mineralaren eskaria gutxitu zen. Bizkaiko Burdingintzak, espainiar merkatura joanez, bere krisia konpondu zuen. Bestaldetik, arazo konpetenziala konpontzeko, enpresen

baterakuntza hasi zen eta izaera monopolista zuen kartel siderurgiko baten sorketa. Aduana-babesa lortzeko, bizkaitar kapitalak, kataluniar kotoi-landarearekin bat egin zuen, Estatuaren aurrean, talde oligarkiko ahaltsu bat sortuz.

Iharduera industrialak itsas adarrean bilduta, dimentsio handiko enpresak eta inmigrazioaren bidez asetuta behar izan zen esku lanaren izugarritzeko eskaria, biztanleriaren garapen kaotiko eta azeleratuta, kutsadura, gainustiapenarekin batera, hauexek izan ziren Bizkaitar Industriaren ezaugarri nabarmenenak. Istilu kulturalak -naturalak edo/ta eraginda-, sarritan agertzen ziren. Baina era horretan, langileen kontzientziaren sorketa eta langile-erakundearen garapena, erraztu ziren.

Baina bizkaitar eta gipuzkoa modeloek zer edo zer amankomun izan zuten: autonomia fiskala eta kapital-metaketa areagotzeko, esku lanaren ustiaketa.

# Industrializazioa, gizarte eta politika.



Logikaz, galgarik gabeko eta kaotikoa izan zen garapen industrial bizkaitarrak, gure Historian eragin handia izango zuten aurkake-ta sozial gogorrak sortu zituen. Orduan, nabarmentzen ziren gizarte-taldeak huexek ziren:

-Oligarkia burgesa, espainolista, espainolistaizale, jauntxokeriaz beteta eta ustela, Bizkaian Estatuko aparatua kontrolatzen duena.

-Espainolista ez zen burgesia, politika eta ekonomi mailan, beti borrokan Oligarkia indartsuarekin.

-Bertako herritar klaseak (nekazariak, artisauak, arrantzaleak...), Iraultza Industrialak sorturiko ustiapen modu berriak eta bere ohiko bizi-moduaren krisia sufritzen dutenak.

-Etorकिनak, kapitalak exijitzen zuen esku lan merkea, ustiapen basati jasaten dutenak. Bilbon, 1.900.ean, 25 urte baino gehiagoko gizonen %45a, Euskal Herriatik at jaioa zen.

### 3. Euskal Herriko historia.

-Textuinguru historiko honetan sortu ziren PSOE eta PNV, sozialismoa eta nazionalismoa.

Gizarte-klase berrien sorketa azeleratutak, PSOEren jaiotza eta bere hedapen errazaren giro aproposa sortu zuen. Gainustiatua, deustraitua eta laidatua zegoen jendetzak, erraz egin zuen topo sozialismoarekin, batez ere, 1.890.ean eta 1.910.ean, meatze-industrian eginiko greben arrakasta kontutan hartzen badugu.

Logikoa denez, beste lurralde batzuetan, PSOE-ren eta bere sindikatu UGT-ren hedapena eta garapen industria-

rena, antzekoak izan ziren. Gipuzkoan, ahulagoa izan zen -bere gunea Eibar izanik- eta hala Araban nola Nafarroan, bere presentzia nimiñoa izan zen, eta ia nulua nekazaritzako zonaldeetan.

POSE-ri dagokionez, bere hasierako egitasmoak -aldaketa sozialerako- agudo difuminatu ziren. Nabarmentzekoa zen, bere harreman onak Oligakiaren sektore batekin, Primo de Riveraren Diktadorearekin elkarlanean aritzera eraman zuen marko burgesera egokitzea.

Nazional auziari dagokionez, hasiera-hasieratik,



bere jarrera erabat antieuskalduna izan zen ("euskal nazionalismoa, unibertsalismo sozialistaren aurkakoa da", "aberri unibertsalaren sorketaren esperoan, Euskal Herriak, Espainiarekin batzen zituen lokarriak indartu behar ditu")

Ildo honi jarraituz, euskara atzerakoitzat hartu zuen...baina 1.901.enetik aurrera, euskara, propaganda egiteko erabili zuen. Euskal eta katalan nazionalismoen sorketa, klase langile, bere benetako helburuetatik okerbidetzeko azpijoko bat balitz bezala definitu zuen...Polonia eta Austriaren independentzia eta espainiar nazionalismo inperialista defendatzen zituen bitartean.

Espainiar Oligarkiak behar zuen paper espainolizatzailea, herritar klaseen artean, PSOE-k garatu zuen eta, zio elektoralistengatik, bertakoen eta etorkinen arteko aurkaketa hau sustatu zuen. Garai hartan, PNV-ren politika, aurkaketa areagotu zuen. PSOE-k etorkinengandik "edaten" zuen, PNV-k, bertakoengandik.

XIX. Mendearen bukaeran, batez ere, Bizkaian, abertzalismoa, mami eskaseko foruzaletasun batean oinarritzen zela, egiaztatu behar da.

Sabino Aranak, ideologia apurtzaile bat garatu zuen. 1.839.eko foru-abolizioa gertatu baino lehen, Euskal Probintziak, independente eta burujabeak izan ziren, horregatik, Bizkaiko independentzia helburutzat izango zuen mugimendu politiko baten beharra aldarrikatu zuen. Karlisten lema, "Jaungoikoa eta Foruak", "Jaungoikoa eta Lege-Zarra" leman bihurtu zuen. Lema honek, aranismoaren funtzesko bi oinarriak laburbiltzen ditu: Alde batetik, erlijioa. Sabinok, nazionalismoaren helburu gorena, euskaldunen kristautzea zela esan zuen. Bestetik, helburu politikoa, "Lege-Zarra" adierazpenak batzen du, galduriko burujabetasuna zeharka aipatuz. Sabinorentzat, naziotasun guztien osagarriak, bost dira: Enda, Hizkuntza, Gobernu eta Legeak, Izaera eta Usadioak eta Nortasun Juridikoa. *G a r r a n t z i t s u e n a*, Sabinorentzat, arraza da. Hizkuntza eta Lurraldetasuna, bigarren mailakoak dira. Euskal Herriaren ezaugarri desberdintzaileak azpimarratu zituen, batez ere etorkin jendetzarekikoak ("inbasio maketoa"). Arana eta bere jarraitzaileentzat, etorkinak, euskal nortasunaren suntsitzaileak ziren. Estatu-eredu bezala, Euskal Konfederazio

### 3. Euskal Herriko historia.

bat defendatzen zuen, zeinari, askatasun osoz, Euskal zazpi Probintziak gehituko litzaizkioken, bakoitzak bere independentzia mantenduz. Ikuskera honek, euskararen batasunaren errefusapena eta euskalkien indarketa suposatuko zituen.

Sabino Arana, ikuspegi historiko batez irakurri behar dela azpimarratzea, beharrezkoa da, deskalifikazio topikoetan ez erortzeko eta bere ekarpen positiboak ulertzera ailegatzeko. Hauek, teoria nazionalista baten sorrera baimendu zuten, eta denbora igaro ahala, arlo guztietan, Euskal Herrirentzako Askatasunaren etorkizun bat lortzeko balio-garria den bilbadura ideologiko aurrerakoi bat edukitzea.

Ikurrina, Sabinok berak asmatu zuen, 1.933.ean, PNV-k bereganatu zuen, eta 1.936.ean, Euskadiko Gobernuak. Euskadi kontzeptua, ere, ideia aranista izan zen.

Arlo sozialari dagokionez, langileen ustiapena, bidegabekotzat hartzen du, baina burgesiari, paper babesgarri bat ematen dio. Zera galdetu zion bere buruari: "zergatik euskal langileak euren artean ez dira elkartzen -"maketoak" ken-

duta- burgesiaren menderaketa despotikoaren aurka borrokatzeko?". Ikuspegi honetatik, 1.911.ean, "Solidaridad de Obreros Vascos", geroago, ELA-STV sortu zen.

Endaren eta usadioen gardentasunarekiko itsumenak, euskal nekazaritzako mundua idealizatzeraren eraman zuen, baserriaren harreman eredu, hirira eramatea helburua izanik.

Sabino Aranaren antiinperialismoa, nabarmentzekoa izan zen eta Sabino - espainiar nazionalismoa amorraturik zebilen garai batean- Kuban, Filipinetan eta Marrokon, Espainiar Gobernuak zerman politika salatzeraren eraman zuen. Honek, espetxeratzea suposatu zion.

Sabinoren tesiak, hiritar sektoreetan, laster hedatu ziren, Batez ere, Bilbon, errepresioa izan arren. "Bizkaitarra" egunkaria, 1.893.ean sortu zen, 1.894.ean, "Euskeldun Batzokiya", 1.895.ean, Bizkai Buru Batzarra eta 1.897.ean, PNV alderdia. 1.898.ean, Sabino Arana diputatu probintziala hautatua izan zen, 4.000 boto baino gehiago eskuratu...

1.903.ean Sabino hil zen. PNV zabaltzen hasi zen, 1.911.ean Euskadi Buru Batzarra sortu zen, eta SOV sindikatua, zeinak 1.935. inguruan izaera aurrerakoia-go, langileago eta klasistago bat barneratu zuen. Errepublikaren azken garaian, bere ezarketa maila, Gipuzkoan, indartsua da, Bizkaian, gehiago, eta ahulagoa Nafarroan eta Araban. PNVk izandako bilakaeran, bi aspektu nabarmendu behar dira: alde batetik, gizarte talde desberdinak batzea helburutzat duen klasearteko izaera, baina burgesiaren taldek zuzenduriko harreman paternalisten eremuan.

Bestetik, -esandakoa-ren ondorioa- "status"-en defentsa ( Lege eta "ordena", erlijioa, usadio "onak", antisozialismoa...). Oreka soziala, SOV sindikatuak bermatzen du eta politikoa, "marko orekatu" bat bermatzen duten itunen bidez lortzen da.

XX. mendearen lehenengo hamarkadetan, arlo kulturean eginiko lana nabarmendu behar da, zeinari esker, euskal kultura eta sentimendua berpiztu ziren.

1.930. ean, ANV alderdia sortu zen, eskerreko jarreetara hurbil dauden planteamenduez (akonfessionaltasuna, etorkinen aldeko jarrera, hizkuntzaren batasuna...). Hala eta guztiz, jendetza-alderdi bat izaten saiatu zenean, porrot egin zuen.